

Astoa eta ottoa



# Astoa eta otxoa

**irudiak:**

IRRIMARRA ilustrazioa

**testuak:**

Fito Rodriguez eta Josu Zabaleta



**BOOKTEGI**

*Guztion liburua, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

Bazen behin asto bat mendian lasai bazkatzen otsoa berarengana hurbiltzen entzun zuenean.- 'Otsoa dator'- esan zion bere buruari- 'azkar, pentsatu behar dut nondik ihes egin...'. Eta, orduan, zerbait bururatu zitzaion: bat-batean, arantza bat gibealeko hanka batean sartu izan balu bezala itxura egin zuen, eta errenka hasi zen.



Otsoa berarengana iritsi zenean esan zion:

– Aizu, otsoa, begira zer gertatu zaidan... Arantza bat sartu zait sasien artean...Jan behar banauzu, hori egin aurretik, arantza ateratzen lagundu beharko zenidake, bestela, eztarrian min egingo dizu eta itota hilko zara.

Orduan, otsoa astoaren hankara hurbildu zen eta astoak esan zion:

– Hurbil zaitez gehiago edo ez duzu ondo ikusiko.



Otsoak astoaren hankara gehiago gerturatu zen eta orduan, asko pentsatu gabe, astoak izugarrizko ostikoa eman zion. Hain handia izan zen ezen otsoaren letaginak airera zabaldu zirela. Animalia, erabat minduta, handik ihesi atera zen korrika betean.



-Ai ama!- oihukatu zuen otsoak –  
hau gertatu zait sendagile gisa aritu  
nahi izateagatik harakina izanik...!





**BOOKTEGI**

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eu](http://booktegi.eu)